

**2006KO EKAINAREN 28AN, SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE  
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar- Aretoa

**EGUNA:** Hogeita zortzia

**HILABETEA:** Ekaina

**URTEA:** Bi mila eta sei

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**BILDUAK**

**Lehendakaria:** Pello Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

**Ordezkarriak:** Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria  
Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria  
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria  
Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria  
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria  
J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezkaria  
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria  
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria  
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria  
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria  
Angel María Mujika Goya, Mutiloako ordezkaria  
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziko ordezkaria  
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziko ordezkaria  
Bernardo Osinalde, Ormaiztegiko ordezkaria  
Itziar Agirre Berriotxoa, Urretxuko ordezkaria  
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria  
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria  
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria  
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria  
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

**ETORRI GABEAK:** Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriko ordezkaria  
Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria  
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezkaria

Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkaria  
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria  
Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria  
Fco. Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak.

**1.- AURREKO AKTA.** 2006ko martxoaren 16an egindako bileraren aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- MANKOMUNITATEKO ESTATUTU BERRIAK.** Sasieta Mankomunitateak egun emandako zerbitzuak finantzatzeko sistema berri bat ezarri eta zerbitzu publiko berriak emateari buruzko Estatutu berrien zirriborroaren proposamena eta hala badagokio hasierako onespena.

Gogorarazi da, 2006ko martxoaren 16an egindako bileran Batzorde Errektoreak hartutako erabakia:

“**Lehenik. Estatutuak aldatzea,** Mankomunitateak hiri hondakinen bilketa, garraiatze eta tratamendu zerbitzua emateaz **gain,** bere **helburua** ondorengoa ere izan dadin:

- a) Aipatutako zerbitzua emateagatik **tasak ezarri** eta **herritarrengandik zuzenean biltzea,** bai borondatez bai bide exekutiboz.
- b) Helburu nagusiaz aparteko **bestela zerbitzu batzuk** ere ematea **borondatez** hala eskatzen duten udalerrietan, finantzaketa osoa berauen kontura izango delarik.

**Bigarren.** Zentzu horretan Mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridiko-ekonomikoei **Estatutuen zirriborroa** idazteko **enkargua ematea,** testuan Entitateko helburu berria gauzatzeko lege ezarritako ahalmenak jasoz.”

Hori guztia kontutan izanik, Estatutu berrien zirriborroa prestatu da eta ordezkari guztiei postaz bidali zaie, batzar errektorea baino lehen aztertu dezaten.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak aurkeztu dituzte:

Manuel Iturrioz Ordiziako ordezkariak galdetu du ea xede osagarri gisa aurreikusi diren zerbitzuak prestatzeko langile gehiago kontratatu behar den.

Lehendakari jaunak erantzun dio, hori beharraren arabera izango dela.

Patxi Plazaola Beasaingo ordezkariak ondorengo aldaketa egitea proposatu du:

“b) Xede osagarri gisa, Udalbatzak hartutako erabakiaren bitartez berariaz eskatzen duten udalerrietan, xede nagusiarekin zerikusirik ez duten beste zerbitzu publiko hauek egitea: kaleak eta estoldak garbitzea eta hiri-altzariak mantentzea. Kasu horietan, zerbitzuaren finantzatze osoa eskatzaileen konturakoa izango da.”, esaten duen tokian ondorengo esan beharko lukeela:

“b) Xede osagarri gisa, Udalbatzak hartutako erabakiaren bitartez berariaz eskatzen duten udalerrietan, xede nagusiarekin zerikusirik ez duten beste zerbitzu publiko hauek ematea: kaleak eta estoldak garbitzea eta hiri-altzariak mantentzea. Kasu horietan, zerbitzuaren finantzatze osoa eskatzaileen konturakoa izango da eta zerbitzua emateak ez du inolaz ere suposatuko Sasieta Mankomunitateko plantila handitzea.”

Jose M<sup>a</sup> Lasa, Legorretako ordezkaria alde azaldu da Beasaingo ordezkariak proposatzen duenarekin, baina berak puntu horretan bertan aldaketa bat egitea proposatu eta horren ondorioz, puntu hori honela geldituko litzateke:

“b) Xede osagarri gisa, Udalbatzak hartutako erabakiaren bitartez berariaz eskatzen duten udalerrietan, xede nagusiarekin zerikusirik ez duten beste zerbitzu publiko hauetakoren bat, batzuk edo denak ematea: kaleak eta estoldak garbitzea eta hiri-altzariak mantentzea. Kasu horietan, zerbitzuaren finantzatze osoa eskatzaileen konturakoa izango da eta zerbitzua emateak ez du inolaz ere suposatuko Sasieta Mankomunitateko plantila handitzea.”

Felix Urkola, Lazkaoko ordezkariak galdetu du zergatik proposatzen diren, Sasieta Mankomunitateko helburu nagusiarekin zerikusirik ez duten xede osagarriak. Jarraian adierazi du: “zerbitzu horietan interesa duten udalerriek beste formula batzuk erabili ditzakete, nahi duten helburua lortzeko. Mugarik gabeko bide berriak irekitzen dira, oraindik ere ez dakigunean Partzuergoarekin zer gertatu behar den.”

Iñaki Erauskin, zerbitzuburuak ondorengo azaldu du: “Nahiz eta oraindik ez jakin Partzuergoarekin zer gertatu behar den, Entitate hau sortzeak ez du esan nahi Mankomunitateak desagertu behar direnik, zeren eta Partzuergoak “*red en alta*” delakoa emango luke, hau **Gipuzkoa osorako azpiegitura handiak** (errauskailua ea kasua bada, konpostaje planta) eta Mankomunitateek berriz, “*red en baja*” delakoa, hau da, orain arte egiten den zabor-bilketa **arrunta, gaikako biletak (beira, papera, kartoia, ontziak, arropa, pilak, hondakin arriskutsuak...)** garbigunea etab.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. Jarraian aipatzen diren Estatutu-Proiektuari hasierako onespena ematea.

**Bigarren.** Estatutu-Proiektua Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztiei igortzea, udalerrri bakoitzak Udalbatza Osoan gehiengo absolutuarekin onartu eta jendaurrean jarri dezan adieraziz alegazioak aurkezten ez badira behin betiko onartuta geldituko direla, horren berri Sasieta Mankomunitateari emanaz.

**Hirugarren.** Erabaki hau Estatutu-Proiektuarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea beharrezkoa den txostena eman dezan.

## **ESTATUTU-PROIEKTUA**

### **“SASIETA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK**

#### **1. ARTIKULUA.-**

1. Gipuzkoako lurralde historikoko Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarragako udalerrriak honako xede hauek dituen borondatezko mankomunitatean elkartu dira:
  - a) Xede nagusi gisa, hiri-hondakinak kudeatzea, hots, horiek biltzea, biltegitratzea, garraiatzea, baliaraztea eta ezabatzea, jarduera horiek zaintzea eta hondakinak botatzen edo isurtzen diren lekuak itxi ondoren zaintzea eta, orobat, jarduera horiek guztiak finantzatzeko tasa homogeneoak ezartzea, kudeatzea, biltzea eta ikuskatzea.
  - b) Xede osagarri gisa, Udalbatzak hartutako erabakiaren bitartez berariaz eskatzen duten udalerrietan, xede nagusiarekin zerikusirik ez duten beste zerbitzu publiko hauetakoren bat, batzuk edo denak ematea: kaleak eta estoldak garbitzea eta hiri-altzariak mantentzea. Kasu horietan, zerbitzuaren finantzatze osoa eskatzaileen konturakoa izango da eta zerbitzua emateak ez du inolaz ere suposatuko Sasieta Mankomunitateko plantila handitzea.
2. Adierazitako xedeek zerbitzuak berak egitea zein horretarako beharrezkoak diren eraikinak eta instalazioak eraikitzea eta erostea hartuko dute beren baitan.
3. Erakundeak Beasaingo Martina Maiz kaleko 3. zenbakiko etxabea du legezko egoitza.
4. Bere eskumeneko zerbitzuak egiteko, Sasieta Mankomunitateari Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua 1. atalean adierazitako ahalmenak dagozkie.

## **2. ARTIKULUA.-**

1. Mankomunitatearen gobernua eta administrazioa honako organo hauen esku daude:
  - a) Zuzendaritza-batzordea.
  - b) Batzorde betearazlea.
  - c) Lehendakaria.
  - d) Lehendakariordea.
2. Zuzendaritza-batzordea 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako ordezkari banak eta 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako bina ordezkari osatzen dute. Ordezkariak udal bakoitzeko udalbatzaren erabakiz izendatuko dituzte eta beren ordezkaritza udala berritzen denean amaituko da, edo lehenago, izendapena baliogabetzen bada edo ordezkariak uko egiten badio edo udalbatzako kide izateari uzten badio.

Beste horrenbeste ordezeko izendatuko dira, titularren batek uko eginez gero, udalbatzako kide izateari utzi, bere izendapena baliogabetu edo joaterik ez duenean edo gaixorik baldin badago (alderdi horiek idatziz justifikatu ondoren) haren ordezkari jardun dezaten. Ordezkari organo kolegiatuaren kideen funtzio generikoetara bakarrik iritsiko da, ez lehendakariaren edo lehendakariordearen berriazko funtzioetara edo ordezkariutakoan bil litekeen beste edozeinetara.
3. Kide diren udalak osorik berritzen direnean, horiek mankomunitatean dituzten ordezkariak behin-behinean jarraituko dute mankomunitatearen zuzendaritza-organoren berriak eratu artean.
4. Lehendakaria batzordeak izendatuko du bere kideen artean. Era berean, lehendakariaren postua bete gabe dagoenean, hura gaixorik dagoenean edo ez dagoenean ordezkariak duen lehendakariordea izendatuko da. Izendapenak batzorde bakoitza eratzean egingo dira, eta edozein unetan kargu horiek batzordearen agintaldia amaitu baino lehen bete gabe geratze badira. Bi karguak (lehendakaria eta lehendakariordea) ezin izango dituzte bete udalbatza edo udalerririk bereko ordezkariak. Bi karguak aldi berean bete gabe egongo balira, lehendakari lanetan behin-behinean jardungo luke zuzendaritza-batzordeko kiderik zaharrenak eta adinez hurrengoak beteko luke lehendakariordearen kargua, betiere goian adierazitako salbuespena betez.
5. Udalbatzak berriro ondorengo bi hilabeteetan mankomunitateko organo berriak eratu geratu beharko dute. Horretarako, behin-behineko lehendakariak mankomunitateko kide diren udalbatzek izendatutako ordezkariak zuzendaritza-batzordearen ohiz kanpoko bilkurarako deialdia egingo die, nahiz eta udalbatza berria eratu ez delako ordezkari horiek oraindik ere izendatu gabe egon.

## **3. ARTIKULUA.-**

Zuzendaritza-batzordeak honako aginpide hauek ditu:

- a) Estatutuak aldatzea, toki araudiaren arabera.
- b) Mankomunitatea desegitea, , toki araudiaren arabera.
- c) Mankomunitateko kideak onartzea eta bereiztea.
- d) Kreditu-eragiketak tokiko legerian ezarritako baldintzetan onartzea.
- e) Zerga alorreko baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; bere eskumeneko gastuak xedatzea eta kontuak onartzea; hori guztia Toki Ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorritik.
- f) Langile-zerrenda eta lanpostuen zerrenda onartzea, funtzionarioen ordainsari osagarri finkoen eta aldizkako zenbatekoa finkatzea eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea zehaztea.
- g) Araudi organikoa eta ordenantzak onartzea.
- h) Ondasunak eta eskubideak erostea eta ondarea besterentzea, tokiko legerian ezarritako baldintzetan.
- i) Administrazio-ekintzak eta judizialak erabiltzea eta mankomunitatea zuzendaritza-batzordearen eskumeneko gaitan defendatzea.
- j) Mankomunitateko kide diren udalerriek eta beste administrazio publiko batzuek egindako eskumen-eskuordetzeak onartzea.
- k) Gobernu-organoak kontrolatzea eta fiskalizatzea.
- l) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea.
- m) Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako administrazio publikoei eskumen-gatazkak planteatzea.
- n) Mankomunitatearen ekintzak kaltegarritzat jotzea.
- o) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
- p) Mota guztietako kontratazioak eta emakidak gauzatzea eta obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, horiek kontratatzeko edo emateko eskumena duenean, tokiko legerian ezarritako baldintzetan.
- q) Beste erakunde eta organo kolegiatu batzuetarako mankomunitatearen ordezkariak izendatzea.
- r) Udalerrietan onartzeko gehiengo berezia eskatzen dutelako udalbatzari dagozkion beste aginpide guztiak.
- s) Legeek udalbatzari espresuki ematen dizkieten gainerako aginpideak.

#### **4. ARTIKULUA.-**

Batzordea honela bilduko da:

- a) Ohiko bilkuran gutxienez sei hilez behin, eta lehendakariak egingo du deialdia.
- b) Ohiz kanpoko bilkuran, lehendakariak deituta, gutxienez zuzendaritza-batzordeko kideen laurdenek idatziz eskaturik, edo zuzendaritza-batzordearen nahiz batzorde betearazlearen erabakiz deituta.
- c) Deialdia gutxienez bost astegun lehenago egingo da ohiko bilkuretarako eta astegun bat lehenago ohiz kanpokoetarako.

## **5. ARTIKULUA.-**

1. Bilkurek balioa izan dezaten, kideen zuzenbideko kopuruaren erdia gehi bateko quoruma lortu beharko da. Nahitaezkoa izango da lehendakaria edo legezko ordezkoa eta idazkaria edo legezko ordezkoa bertaratzea.

Bilkurarako deialdian ohartaraziko da lehen deialdian quoruma lortzen ez bada bilkura bigarren deialdian egingo dela handik ordu erdira.

2. Erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soil bidez hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, bozketa bilkura berean errepikatuko da eta berdinketak jarraitzen badu, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.
3. Batzordeko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:
  - a) Mankomunitatea aldatzea edo desegitea eta estatutuak aldatzea.
  - b) Mankomunitateko kideak onartzea eta bereiztea.
  - c) Kreditu-eragiketak tokiko legerian ezarritako baldintzetan onartzea.
  - d) Barne-araudia edo araudi organikoa onartzea eta aldatzea.
  - e) Ondasunak tokiko legerian ezarritako baldintzetan besterentzea.
  - f) Funtzioak edo jarduerak beste administrazio publikoetara aldatzea, eta beste administrazio batzuek egindako kudeatzeko eskuordetzeak edo gomendioak onartzea, Legeak nahitaez ezartzen dituen izan ezik.
  - g) Dagokion zerbitzua kudeatzeko era zehatza onartzea.
  - h) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
  - i) Ondasunak eta zerbitzuak tokiko legerian ezarritako baldintzetan ematea.
  - j) Legeak zehazten dituen gainerakoak.

## **6. ARTIKULUA.-**

Idazkariaren eta kontu-hartzaile/diruzainaren karguak gaikuntza nazionaleko funtzionarioek beteko dituzte, baina Mankomunitatearen zerbitzuen bolumena eta baliabideak kontsideratuz, dagokion organismoari Mankomunitatean lanpostu horiek mantentzeko beharra salbuestea eskatuko zaio.

## **7. ARTIKULUA.-**

1. Batzorde betearazlea 5 ordezkari osatuko dute; horietariko bi lehendakaria eta lehendakariordea izango dira eta beti egongo da Beasaingo Udalaren ordezkari bat, udalerrri horretan kokatuko baita zabor-tegi kontrolatua.
2. Gainerako lau ordezkariak osatzeko honako barruti hauetan ordezkari bana hautatuko da:

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Alzaga, Legorreta, Gaintza, Arama.

## **8. ARTIKULUA.-**

1. Batzorde betearazlea lehendakariaren ekimenez edo bere kideek eskatuta bilduko da.
2. Bilkuretarako deialdiak egiteko eta bilkurek balioa izan dezaten, 4. eta 5. artikuluetan adierazitako irizpide berberei jarraituko zaie.

## **9. ARTIKULUA.-**

Batzorde betearazleari honako aginpide hauek dagozkio:

Zuzendaritza-batzordeak eskuordetzen dizkionak (Estatutu hauen 5-3. artikulukoak izan ezik), lehendakariak eskuordetzen dizkionak eta, batez ere, zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak betearaztea eta horien jarraipena egitea.

## **10. ARTIKULUA.-**

Lehendakariari honako aginpide hauek dagozkio:

- a) Mankomunitatearen gobernua eta administrazioa zuzentzea.
- b) Mankomunitatea ordezkatzea.
- c) Zuzendaritza-batzorderako eta batzorde betearazlerako deialdia egitea eta horietan lehendakari-lanetan jardutea, eta berdinketak kalitateko botoarekin ebaztea.
- d) Zerbitzu eta obra mankomunatuak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- e) Kudeaketa ekonomikoa onartutako aurrekontuaren arabera garatzea, gastuak bere eskumenaren mugen barruan xedatzea eta kreditu-eragiketak ituntzea. Hori guztia tokiko legerian ezarritako baldintzetan.
- f) Aurrekontuen eta ordenantzen proiektuak eta horien aldaketak idaztea.
- g) Bere kabuz eta bere ardurapean hartzea mankomunitatearen gaiak behar dituzten presako neurriak, zuzendaritza-batzordeari lehen bilkuran horien berri emanaz eta, kasuaren garrantziak hala eskatuko balu, ohiz kanpoko bilkurarako deialdia egitea erabakiz.
- h) Enplegu publikoaren eskaintza zuzendaritza-batzordeak onartutako aurrekontuaren eta langile-zerrendaren arabera onartzea, langileak hautatzeko probetarako eta lanpostuak hornitzeko lehiaketetarako oinarriak onartzea eta finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

- i) Mankomunitateko langile guztien goi-buruzagitza betetzea eta horien izendapena eta zigorrak erabakitzea, funtzionarioak zerbitzutik bereiztea eta lan-kontratuko langileak kaleratzea barne, zuzendaritza-batzordeari horren berri emanez, azken bi kasu horietan, batzordeak egiten duen lehen bilkuran. Aginpide hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 99.1. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe ulertuko da.
- j) Administrazio-ekintzak eta judizialak erabiltzea eta mankomunitatea bere eskumeneko gaietan eta, presako kasuetan, zuzendaritza-batzordearen eskumeneko gaietan defendatzea. Azken kasu horretan zuzendaritza-batzordeari horren berri emango dio egiten duen lehen bilkuran, erabakitakoa berrets dezan.
- k) Lehendakariaren eskumeneko gaietan kaltegarritzat jotzea zuzendaritza-batzordeari proposatzeko ekimena.
- l) Mota guztietako kontratazioak eta emakidak gauzatzea, tokiko legerian ezarritako baldintzetan.
- m) Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, horiek kontratatzeko edo emateko eskumena duenean eta aurrekontuan aurreikusita daudenean.
- n) Ondasunak eta eskubideak erostea eta ondarea besterentzea, tokiko legerian ezarritako baldintzetan.
- o) Mankomunitatearen gobernu-organoen erabakiak argitaratzeko agintzea, horiek betetzea eta betearaztea.
- p) Bere agintaritzari desobeditzeko hutsegiteak edo ordenantzetako arau-hausteen ondoriozkoak zigortzea, ahalmen hori beste organo batzuen eskuetan dagoenean izan ezik.
- q) Legeek ematen dizkioten gainerako aginpideak.

## **11. ARTIKULUA.-**

Lehendakariordeari dagokio lehendakaria ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo ezinduta dagoenean bere funtzio guztietan ordezkatzea eta lehendakariaren kargua bete gabe dagoenean haren funtzioak betetzea.

## **12. ARTIKULUA.-**

Mankomunitateak urtero onartuko du bere aurrekontua, hots, gehienez ere aitor daitezkeen obligazioen eta mugaeguna duten edo aurreikuspenen arabera dagokien ekitaldi ekonomikoan gauzatuko diren eskubideen adierazpen zifratu bateratua eta sistematikoa. Aurrekontua urte naturalarekin bat etorriko da.

## **13. ARTIKULUA.-**

Mankomunitatearen baliabide ekonomikoak honakoak izango dira:

- a) Diru-laguntzak, sorospenak eta dohaintzak.
- b) Bere ondasun eta zerbitzuen errentak eta emaitzak.

- c) Zerbitzuak egiteko edo hiri-hondakinak kudeatzeko jarduerak gauzatzeko tasak.
- d) Bere eskumenen esparruko isun eta zigorretatik datozenak.
- e) Kreditu-eragiketetatik datozenak.
- f) Udalek xede nagusiarekin zerikusirik ez duten egindako zerbitzuen truke ordaindutako zenbatekoak.
- g) Bere ondaretik datozen sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.

#### **14. ARTIKULUA.-**

Ondorio horietarako, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- a) Zerbitzuak egiteko edo hiri-hondakinak kudeatzeko jarduerak gauzatzeko tasak sarrerek gastuak estaltzeko moduan kalkulatu dira.
- b) Tasa horiek homogeneousak izango dira mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztietan.
- c) Urtean behin hiri-hondakinak kudeatzeko zerbitzuek ekitaldi bakoitzerako izan lezaketen kostuaren azterketa ekonomikoa egin eta onartuko da, kostu hori erabat estaltzeko aukera emango duten irizpideetan oinarrituta finantzatzeko beharrezkoa den tasa ezartzeko asmoz. Azterketak zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa osatzen duten zuzeneko zein zeharkako gastu guztiak hartuko ditu bere baitan, are finantza alorrekoak, ibilgetua amortizatzeak eta kontribuzio bereziek ordaintzen ez dituzten aplikatzeko gastu orokorrak ere.
- d) Udalerriek mankomunitatearen alde eskuordetutako 1.b) artikuluko zerbitzuak haiek finantzatu dituzte osorik, mankomunitateak dagokien faktura edo likidazioa igorri ondoren. Fakturan mankomunitateak jasandako zuzeneko zein zeharkako gastu guztiak sartuko dira. Zerbitzu bera hainbat udalerriri batera egiten zaienean, azterketa bat egingo da udal bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko; zenbateko hori jasotako zerbitzu-mailarekiko proportzionala izango da.

#### **15. ARTIKULUA.-**

Mankomunitatearen iraupena edo indarraldia mugagabea izango da.

#### **16. ARTIKULUA.-**

1. Mankomunitateko kide den udalerrri orok, bere udalbatzaren erabakiaren bitartez, estatutuak aldatzeko eskaera egin dezake. Horretarako, estatutuak aldatzeko proposamen zehatza formulatu beharko du, eta lehendakariak eskaera zuzendaritza-batzordeak egiten duen lehen bilkurako gai-zerrendan sartu beharko du, aintzat har dadin.

2. Zuzendaritza-batzordeak eskaera aintzat hartzen badu, lehendakariak batzordearen ohiz kanpoko bilkurarako deialdia egin beharko du. Aintzat hartzen ez badu, alabaina, zuzendaritza-batzordeak egiten duen ohiko lehen bilkurako gai-zerrendan sartu beharko du eskaera lehendakariak.
3. Mankomunitateko kideek eskatu beharrik gabe ere, zuzendaritza-batzordeak bere kabuz edo lehendakariak eskatuta hartu ahal izango du estatutuak aldatzeko erabakia.
4. Nolanahi ere, aldaketa onartzen bada, erabakia, aldatutako estatutuen proiektuaren testu osoarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txostenarekin batera, mankomunitateko kide diren udalen iritzipean jarriko da eta une horretatik aurrera estatutuak onartzeko bete ohi den prozedura bera beteko da.
5. Mankomunitatea desegiteko antzeko prozedurari jarraituko zaio.
6. Mankomunitateko kideak onartzeko eta bereizteko Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 36. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### **17. ARTIKULUA.-**

Mankomunitatea honako kasu hauetan desegingo da:

- a) Legeak xedatzen duenean.
- b) Zuzendaritza-batzordeak hala erabaki eta kide diren udalek berresten dutenean.
- c) Bat ez beste kide guztiak bereizten direnean.

#### **18. ARTIKULUA.-**

1. Mankomunitatea desegiten denean bere likidazioari ekingo zaio. Horretarako, zuzendaritza-batzordea likidazio-batzorde gisa eratuko da obligazioak iraungi arte. Soberakina, hala badagokio, kideak mankomunitatean iraun duten bitartean azken bost urteetan izan duten batez besteko zuzenbideko biztanleriarekiko proportzioan banatuko da.
2. Antzeko irizpideari jarraituko zaio kideren bat bereizten denean, betiere mankomunitatearen funtzionamendu normala eragotzi gabe egin daitekeen neurrian. Dena den, lortutako soberakinetik kide horrek lortu dituen diru-laguntzak eta sarrera finalista guztiak kenduko dira.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA.-**

**Lehena.-** Mankomunitateak estatutu hauen 1. artikuluan adierazitako xedeak bere baitan hartuko dituen barne-araudia onartuko du, baita hondakinak biltzeko, garraiatzeko, tratatzeko eta ezabatzeko zerbitzua arautuko duen ordenantza ere.

Halaber, estatutu hauen 1. artikuluko 1. atalaren b) letran aurreikusitako zerbitzuak egiteko eskuordetzea gauzatzen bada, mankomunitateak dagozkion zerbitzuen araudiak onartuko ditu.

**Bigarrena.-** Estatutu hauetan arautzen ez den guztian toki-araubidearen alorrean indarrean dagoen ordenamendu orokorrak xedatzen duena beteko da.

### **AZKEN XEDAPENA.-**

Estatutu hauek legezko eran izapidetu ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean. “

**3.- LANKIDETZA HITZARMENA.** Konpostajeko Planta Pilotu bat egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Sasieta Mankomunitatearen arteko Lankidetz Hitzarmenaren proposamena eta hala badagokio onespina.

Aztertu ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak Sasieta Mankomunitatearekin sinatzeko proposatu duen Lankidetz Hitzarmena, Lehendakariak berak proposatu du gai hau mahai gainean uztea, ondorengo arrazoiak direla medio:

- Konpostaje-planta, Ormaiztegi kokatzea aurreikusten da, hain zuzen ere, orain funtzionatzen ari den tokian, baina Ormaiztegiko Arau Subsidiarioak ez dute aurreikusten eremu horretarako erabilera hori.
- Konpostaje-planta kokatzea aurreikusten diren lursailak jabe pribatuarenak dira. Horrek eskatzen du, Sasieta Mankomunitateak terreno horiek eskuratzea edota, jabeak Sasieta alde lurrazal-eskubidea eratzea.

Beraz, hori dena burutu arte Sasieta Mankomunitateak ezin du konpromisorik hartu konpostaje planta martxan jartzeko behar diren kontratazioak egiteko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Patxi Plazaola jaunak, Beasaingo ordezkariak adierazi du komenigarria dela jakitea, konpostaje-planta instalatzea aurreikusita dagoen tokia egokia den ala ez eta instalazioa egiteko Ormaiztegiko hirigintza arauak aldatu behar badira, Foru Aldundiak hirigintza-baliabideak erabili beharko dituela.

Felix Urkola jaunak, Lazkaoko ordezkariak ondorengo dio: kostua zenbatekoa den jakitea garrantzizkoa da. Nahiz eta orain esperientzia pilotu bat bezala gaia aurkeztu, azkenean Mankomunitatearen gain geldituko da.

Zerbitzuburuak informatu du, hitzarmen honen jarraian beste hitzarmen bat sinatzea **proposatuko dela, kalean edukinontzi marroi berriak jartzeko. Ondoren mankomunitate** osoan konposta-materiala biltzeak **gutxigorabeherako** zenbatekoa kostua izango lukeen adierazi du:

- Bilketa eta garraioa:	130.000,00
- Urteroko kanpaina:	15.000,00
- Tratamendua plantan:	195.000,00
- Zabortegiko tratamendua:	- 55.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>284.100,00</b>

Udalek orain egiten duten ekarpenekiko %13ko igoera suposatzen du eta familia bakoitzak 7 € gehiago ordaindu beharko lituzke.

Felix Urkola jaunak, Lazkaoko ordezkariak eskatu du, kanpainak egiterakoan ondo adieraztea zein zerbitzu ematen diren eta zenbaterainoko kostua duten.

Gai behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea, hitzarmena sinatu ahal izateko beharrezkoa dela, Ormaiztegiko Arau Subsidiarioetan baimentzea konpostaje-planta kokatzea.

**Bigarren.** Bide batez, Ormaiztegiko Udalari jakinaraztea, konpostaje-planta udalerrri horretan kokatu ahal izateko, beharrezkoa dela Arau Subsidiarioetan aurreikustea lur-eremu bat erabilera hori emateko.”

**4.- UDALITZ:** Mankomunitateko funtzionarioaren eta lan-kontratadun pertsonalaren lan baldintzei buruzko Akordio, Hitzarmena eta Eranskinen proposamena eta hala badagokio onespena.

Lehendakari jaunak ezagutzera eman du, Sasieta Mankomunitateko lan-kontratadun pertsonalaren eta funtzionarioen 2006ko ekainaren 1eko negoziazio Mahai Orokorraren akta, non UDALHITZ eta Udalhitz aurretik errekonozitutako baldintza ekonomiko eta sozialak onartzen diren. Hauen artean lehendakari jaunak proposatu du, 12. eta 13. puntuak kentzea, hau da:

“12.- Halaber, Mankomunitate honek egun zuzenean kudeatzen diren zerbitzuak, zuzenean kudeatzen jarraituko du eta azpikontratatzeko konpromisorik ez du hartuko.

13.- Azpikontrataturako zerbitzuen lan eta soldata baldintzak, Erakunde honetan dauden berdinak izango dira. Honen ordez ondorengoa adieraztea proposatzen du Lehendakariak: "Azpikontrataturako zerbitzuen lan eta soldatak Sektorean legez ezarritako hitzarmenean aurreikusitakoak izango dira."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Felix Urkola jaunak, Lazkaoko ordezkariak, ondorengoa adierazi du:

Negoiazio-mahaian parte hartu nuen Lehendakariak parte hartzerik ez duelako eta han enteratu nintzen, Sasieta Udaltza baina onuragarriagoak diren baldintza ekonomiko eta sozialak onartuta daudela. Lehendakariarekin hitz egin nahi izan dut, baina ez dut lortu. Baldintza horietako batzuk tratatu ziren Batzorde Exekutiboan esan nuen, EUDLEk erabakitakoa izan behar zela aurrera eraman behar zena, zeren eta bestela Udaltzaen edukia hautsi egingo zela. Hori horrela eratu zen eta gero enteratu naiz ezagutzen ez nituen beste erabaki batzuk daudela. Horregatik mahai horretan parte hartzea uko egin nuen.

Erabaki batzuk ekonomikoki ez dute eraginik, baina kontutan izan behar dena filosofia da. Nire ustetan horrelako erabakiak ez diote inori mesederik egiten, are gutxiago langileei. Prozedura honetan akatsak izan dira, Ez dit balio esateak erreferentzi modura Beasain hartzen denik. Hemezortzi udalerrri gaude eta ez Beasain bakarrik."

Pello Garaialde Goikoetxea, Lehendakari jauna: "Agi forma-akats egonda. Historikoki gauza hauetarako Beasaingo Udala hartu da erreferentzi modura, behar bada, Beasaingo Udala arduratu zelako Sasieta Mankomunitatea sortzeko kudeaketa guztietaz."

Felix Urkola jaunak, Lazkaoko ordezkariak: "Udaltza onartu baina lehen errekonozitutako baldintzak onartzen badira, ondorio ekonomiko larriak daude. Lehen aipatu dudan bileran geratu ginen UDALTZA testualki aplikatzea. Nik dena dela, lehendakariordea izendapenari uko egiten diot."

Pello González, Urretxuko ordezkariak: "Niri Udaltza onartu baina lehen errekonozitutako baldintzetatik larriena, Lehendakariak azpikontratazioari buruz kentzea proposatu duen puntua iruditzen zait. Sindikatuek sinatutakoa aplikatu beharko litzateke, beraz, Udaltza aplikatzea proposatuko nuke."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, erabaki hau hartu da:

**Lehenik.** Momentuz UDALTZA bere horretan aplikatzea.

**Bigarren.** Eranskinak, aseguru eta maileguena ezik bere garaian Batzorde Errektorean onartu zirelako, beste Batzorde Errektore batean tratatu eta ebaztea.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.